

Liburuzainek ez dute prentsarik erosiko Iruñeko liburutegietan

Liburutegietan lau egunkari nagusiak izango direla ziurtatu du Yolanda Barcinak, Iruñeko alkateak

NAIARA ELOLA. IRUÑEA

Planto egin dute liburuzainek. Barañain eta Iruñeko udal liburutegietan Gara eta BERRIA egunkariak ez erosteko udalek hartutako erabakiak eragin du liburuzainen protesta. Iñaki Suso ASNAVI Nafarroako Liburuzainen Elkarteko idazkariak jakinarazi duenez, gaur [atzo] 15:00etatik aurrera Iruñeko zortzi udal liburutegietan ez da eguneko egunkaririk izango. Elkarteko kideek batzar batean hartu dute erabakia. Hala, Nafarroako Liburutegien Hitzarmena berraztertzen ez den artean, erabiltzaileek ezingo dute eguneroko prentsa irakurri Iruñeko zortzi udal liburutegietan.

ASNAVIk salatu du liburutegietan materiala erosteko eskumena udalena dela esatea bidegabekeria gogorra dela. Elkaratearen arabera, Iruñeko eta Barañaingo udalek beren liburutegietan zein dokumentu, liburu, egunkari eta gainerako material erosi behar diren erabakitzeke eskumenak zerbitzu publikoen oinarritzko printzipioen kontra egiten du.

Dena den, Yolanda Barcina Iruñeko alkateak udal liburutegietan lau egunkari nagusiak izango direla bermatu du. Hartarako, aurrekontuetara mugatuko direla jakinarazi du Barcinak.

Iruñeko eta Barañaingo udal liburutegietan BERRIA eta Gara ez erosteko erabakiaren arrazoia ekonomikoa zela adierazi zuen Kultura eta Turismo kontseilari Juan Ramon Corpasek, Nafarroako Parlamentuan hilaren 17an eginiko agerraldian. Arrazoi hori egiazkoa izanda ere, liburutegietan erosiko den materiala hautatzea liburuzainoi dagokigu, salatu dute ASNAVIko kideek. Izan ere, atzo arte, bai Barañaingo udal liburutegian, baita Iruñekoetan ere, lau egunkari soilik erosten ziren, bi udalek hala erabakita: Nafarroan argitaraldi handiena duten biak, eta Espainiako beste bi.

Corpasek zuzentzen duen Kultura eta Turismo departamentuaren jarrera kritikatu dute ASNAVIko kideek. Liburutegietako neutraltasuna eta independentzia defendatu beharrean, Barañaingo eta Iruñeko udalei babes eman die. Corpasek, Parlamentuan egindako agerraldian, liburutegietako aurrekontua zehaztea udalei zegokiela esan zuen. Ordea, Nafarroako Liburutegien Hitzarmenak ez du halakorik jasotzen. Puntu hori hitzarmenean jasotzea ahaztu egin zitzaizela argudiatu zuen Corpasek orduan.

Apirila liburuen eta irakurketaren hilabetea izaten da, baina, ASNAVIren ustez, Nafarroako liburutegi publikoek ezer gutxi dute ospatzeko. Liburuzainak erdeinatzen ari dira, eta lotsatuta gaude, gure lanbidearen kontra hartzen ari diren erabakiak ikusita. Izan ere, haien arabera, liburutegiak informazio zerbitzuak dira, eta horien oinarri nagusia balio etiko eta moralei errespetua izatea da.

Inposizioen aurka protesta egiten jarraituko dutela esan dute liburuzainek, erabiltzaileen onerako izango delakoan.